

2015eko EKAINAREN 1ean BURUTU KANBOKO HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

Herriko Kontseilua herriko etxean bildu da, Vincent BRUren zuzendaritzapean, 2015eko ekainaren 1ean, astelehenarekin, 20:00etan.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jogleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Henri Saint-Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Christiane Hargain-Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othatcegyu Anderea, Peio Etchelecu Jauna, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Marie-Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Barkatuak: Eliane Aizpuru Anderea, axuanta, Vincent Goytino Jauna, Camille Jenvrin Jauna, herriko kontseilariak.

Ahalordeak: Eliane Aizpuru Andereak Didier Irastorza Jaunari, Camille Jenvrin Jaunak Bernadette Jogleux Andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Aho batez bertan ziren kideek, Argitxu Hirigoyen Anderea saioko idazkari izendatu dute.

2 – Azken saioko bilkura agirien onartzea.

Auzapez jaunak Kontseiluko kideei galdegiten die oharrak badituztenez egiteko 2015eko apirilaren 13an burutua izan den aitzineko saioko bilkura agiriari buruz. Nehork oharririk ez baitu egin, aitzineko saioko bilkura agiria aho batez onartua da.

2bis – Gai ordenari gehitu gaiaren jartzea.

Auzapez jaunak proposatzen du gai ordenari gai gehigarri bat jartzea:

- Hirigintza baimen eskaera azterketa: hitzarmena Errobi Herri Elkargoarekin.

Aho batez onartua.

- **Hirigintza baimen eskaera azterketa: hitzarmena Errobi Herri Elkargoarekin.**

2014ko martxoaren 24ko Etxebizitza eta Hirigintza Berrituaren Sarbide baten aldeko Legeak (ALUR/EHBS) sartu xedapenen arabera, hirigintza baimenen azterketarako Estatuko zerbitzu batzuk urrik esku uztea 2015eko uztailaren 1ean bukatuko da eskumena duten herrientzat, erran nahi baita Hirigintza Tokiko Plan bat (HTP) edo Lur Okupazio Plan bat daukatenak, eta 10 000 biztanle baino gehiagoko harri arteko baten kide direnak. Hirigintza

tokiko plan bat edo lur okupazio plan bat ez daukatenek Estatuko zerbitzuen laguntza ukan dezakete oraindik. Zuraide herriaren kasua da, 2017 arte.

Gogoeta bat abian ezarria izan da 2014ko azarotik beretik Errobi Herri elkargoaren mailan hirigintza baimenen lurraldean egin azterketa molde berri batzuk aitzinikusteko 2015eko uztailearen 1etik goiti.

Horretarako, 2015eko otsailaren 11ko delibero baten bitartez, Elkargoko kontseiluak, kide diren herrirentzako zerbitzu amankomunaren forma hartuko duen hirigintza baimenen azterketarako elkargoko zerbitzu bat sortzea erabaki du.

Hazparne Herriko Herri elkargoko lau herrik (Aiherra, Beskoitze, Bastida eta Isturitze) hirigintza eskaeren azterketa Errobi Herri elkargoari eskaintzea galdegin dute finantzamendu bat irekiko duen zerbitzu hornikuntza baten bitartez (hortik dator zerbitzu hornikuntzei buruzko 9. estatutuen aldaketa).

2015eko apirilaren 14ko delibero baten bitartez, Elkargoko kontseiluak Lehendakariari kide diren herriekin, hirigintza baimenen azterketarako baldintzei buruzko hitzarmena izenpetzeko baimena eman dio.

Horretarako da Herriko kontseilua, Kanbo herria eta Errobi Herri elkargoaren arteko lurren okupazio eta erabilpenari buruzko eskaerak aztertzeko hitzarmeneko hitzak onartzera eta Auzapeza honi dagokion hitzarmena izenpetzera baimentzera gomitatua.

Aho batez onartua.

3 – Ama eskolako obrak: enpresen izendatzea.

Bernadette Jouglaux Andereak azaltzen du:

2015eko udako oporren garaian burutu beharreko « Chantecler » ama eskolako berrikuntza energetiko obren kariatara, kontsulta bat abian ezarria izan da, prozedura egokitua duen merkatu baten arabera, 2015eko apirilaren 17an.

Ondotik azaldu 5 kontsulta zatitan banatuak dira prestazioak.

- 1. lotea: zingeria- estaldura.
- 2. lotea: aluminiozko kanpo arozteriak
- 3. lotea: soailu-isolamendua
- 4. lotea: elektrizitatea
- 5. lotea: berokuntza

Merkatua prezio orokorra eta forfatarioan da jakinez obren zenbatekoaren aurrekontua, zergak kanpo, 210 000 euro ingurutan estimatua izan dela.

2015eko maiatzaren 11n, 12:00etan finkatu gutun azalen uzteko epemuga egunean, herriko etxeak eskuratu ditu: 26 gutun lote guziendako.

Gutunak 2015eko maiatzaren 11n, 17:00etan irekiak izan dira.

Kontsulta araudian ekarri aukeraketa irizpideak aztertu ondoren, eta 2015eko maiatzaren 26an 14:00etan merkatua lortu zuten enpresak izendatzeko burutua izan den bilkuraren ondotik, eskaintza

orokorrak kontutan hartuz (oinarrizko eskaintza eta opzioak), merkatua enpresei ondoko taularen arabera ematea proposatzen da:

Lotearen Zenbakia	Sozietate izena	Lekua	Zenbatekoa ZG	Zenbatekoa ZGB
1 – Zingeria - estaldura	SARL - LANGILEAK	KANBO	41 170,00 €	49 404,00 €
2 - Aluminiozko kanpo arozteriak	SARL ALCHUTEGUY	BAIONA	77 973,48 €	93 568,18 €
3 - Soailuak-Isolamendua	SAS - CANGRAND	BIARRITZ	22 449,50 €	26 939,40 €
4 - Elektrizitatea	SARL - SUDELEC COTE BASQUE	BAIONA	15 908,11 €	19 089,73 €
5 - Berokuntza	SARL FAUTHOUX	BIARRITZ	27 761,99 €	33 314,39 €
OBREN MERKATUA OROTARA			185 263,08 €	222 315,70 €

Jougleux Andereak Herriko Kontseilua Auzapez Jauna gorago agertu enpresekin merkatuak izenpetzera baimentzera gomitatzen du.

Operazioa energia aurrezpen desmarta batean abiatu, Herriko Kontseiluari galdegiten zaio Auzapez Jauna, eraikinen hobekuntza eta erreberitze energetiko desmarten karietara jadanik dauden diru eta zerga mailako laguntzak eskatzera baimentzea.

Oroitaria da operazio honen karietara, eskainia izan dela:

Esleitzaila	Misioa	Zenbatekoa ZG	Zenbatekoa ZGB
Eliane MENDIBOURE BET Ingetudes	Obralaritza (%9,5)	17 599,99 €	21 119,99 €
APAVE SUDEUROPE	Azterketa teknikoa	2 130,00 €	2 556,00 €
ELYFEC - S.P.S	S.P.S Koordinazioa	615,00 €	738,00 €

Beraz operazio honen prezio orokorra 205 608,07 € ZG-ra heltzen da, erran nahi baita 246 729,68 € ZGB.

Auzapez Jaunak ohartarazten du operazioaren zenbatekoa, obralaritza eta SPS koordinazio ordainsariak kontatu gabe, aurreikusi zenbatekoa baino apalagoa dela, eta hau gauza ona da.

Bacardatz Jaunak adierazten du, berokuntza lotean, interesgarria izanen zela egur estiloko galdara bati pentsatzea operazio hau energia aurrezpen operazioan sartzen delako. Ikusiz eta zenbateko orokorra estimatiboa baino apalagoa dela, damu dela beste energia berriztagarri iturri bat bilatua ez izatea.

Auzapez Jaunak erantzuten dio ingurumen batzorde baten karietara Errobi Herri Elkargoan, bera batzorde horretako lehendakaria izanik, egur berokuntza ekoizleen ordezkari batek gai horri buruzko

txosten bat aurkeztu duela. Bilkura horretan zegoen Vincent Goytino Jaunari eskatu zion pertsona hori Kanbora etorraraztea dispositibo hori aztertzeko, esplikatzea baitu egur berokuntza baliagarria dela kasu batzuetan, eta berokuntza klasikoa baino anitzez karioago beste kasu batzuetan. Ikerketa bat burutu behar da eta kasu gehienetan auzotegi oso bat hunkitzen du.

Auzapez jaunak adierazten du gogoeta bat eramatearen arrunt aldekoa dela, baina ez obra hauen kasuan: ama eskola bat da eta obra horiek fite burutu behar dira, edo 2016ko oportetean egin. Horretarako, ezinezkoa dirudi ikerketa hau egin eta obrak uda honetan burutzea. Iradokitzen du Bacardatz Jaunaren proposamenari segidarik ez ematea, obrak urte batez ez gibelatzeko.

Bacardatz jaunak ohartarazten du ikergla batek herriko gune guzietako bilan energetikoak aurkeztu dituela duela bi edo hiru hilabete. Galdaren arazoa altxatu zuen, aldatua izan behar zen ama eskolakoa barne, eta damugarria iruditzen zaio zifratzerik egina izan ez dadin, bakarkako berokuntza bat delako.

Auzapez Jaunak pentsatzen du etorkizunean, egitasmo egituratzaileagoetan, aitzin ikerketa bat burutu behar dela zerbait hitzartu aitzin.

Auzapez Jaunak bozkara pasaratzen du.

Aho batez onartua.

4 – Mailegua: birnegoziaketa eta suskripzioa.

Christian Devèze Jaunak, finantzetaz arduratzen den axuantak, bere kontseilu kideei indarrean dagoen mailegu bat birnegoziatzea eta hastapeneko aurrekontua adostu egunean bozkatu mailegu bat suskritzera proposatzen die.

a) *Birnegoziaketa.*

Aurrekontu orientazioen aurkezpenean, zorraren osagai osoa aurkeztua izan da. Mailegu hauei bermatu tasak, tasa lehiakorrek dira, hiru mailegu kenduta, hauetarik bi birrantolagarri zailak direnean urteko interes ordainsari klausula bat baitago. Izan ere, gaur egungo tasa eta garai hartan finkatu tasaren arteko tarte handiagoa eta ordainsaria handiagoa zen ere. Dispositibo hau hunkitzen ez zuen mailegu bat gelditzen da. Aurrezki Kutxan egin mailegu bat zen, birnegoziaketaren ondotik, %4,52tik %1,53ko tasara iragan daitekeena, erran nahi baita 39 697 €-ko aurrezpena oraindik iraun behar dien epera, oro har bost urte, ordainsaririk gabe.

Michelena Jaunak galdegiten du zergatik urte hau igurikatu behar izan den birnegoziatzeko, azken bi edo hiru urta hauetan tasak apaltzen direla.

Devèze Jaunak ohartarazten dio tasak duela bi edo hiru urte, ez zirela %1,53tan. Interesgarriagoa da tasak maila apalenean direnean berriz antolatzea. Proposamen hau orain aurkeztua da, iduri bailuke tasek berriz gora egiten dutela.

Bacardatz Jaunak azpimarratzen du mailegu hastapenean direla interesak maila gorenean, beraz hobe dira mailegu hastapenean berriz negoziatzea.

Devèze Jaunak zehazten du maileguak molde orokorrean hamabi urterako izenpetuak izan direla. Mailegu honetarako, bost urte gelditzen dira, beraz interes gutiago eta kapitala gehiago. Baina proposatu tasa biziki apala aintzat hartuz, eta duela bi edo hiru urte proposatua ez zena,

interesgarria da mailegu hori berriz negoziatzea. Azpimarratzen du ere herriak tasa hau, onak diren zorpetze ratioei esker lortu duela.

b) 1 000 000 €-ko mailegu baten suskripzioa.

Devèze Jaunak seinalatzen du kontsulta bat abian ezarria izan dela bost bankuetxerekin 1 000 000 €-ko mailegua hamabi urteko epearekin burutzeko. Erantzun duten lau bankuetxeen erantzunak ondokoak dira:

- Crédit Agricole: %1,50
- Caisse d'Epargne: %1,33
- La Banque Postale: %1,25
- Crédit Mutuel: %1,55.

Devèze Jaunak La Banque Postale atxikitzea proposatzen du 1 000 000 €-ko mailegua hamabi urteko epearekin %1,25 tasa finkoan burutzeko.

Michelena Jaunak ohartarazten du kontseilukoek eskuratu duten orrian, 22 467,36 € hiruhileko epeari dagozkiola eta ez urte sarikoari.

Devèze Jaunak zehazten dio hiruhileko diru itzultze finkoaren zenbatekoa dela.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

- Caisse d'Epargnerekin burutu maileguaren birnegoziatzea: aho batez onartua.
- 1 000 000 €-ko mailegua La Banque Postalerekin burutzea: gehiengoarekin onartua. Abstenitu dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aïçaguerre Anderea, Michelena Jauna.

5 – Diru laguntzak.

Auzapezak Herriko Kontseiluari proposatzen dio ohiko diru laguntza bat eta ez ohiko diru laguntza bat ematea.

Azken saioan adierazia izan zen bezala, gehiengoko taldeak erabaki zuen finkatu kopurua eta Herriko Kontseiluak bozkatu zama ez emendatzea. Baina, oposizioek egin oharra kontutan hartzeko, Bake Bidea ez baitzen lortzaileen zerrendan agertzen, 100 €-ko diru laguntza arrunt sinbolikoa Euskal Herria bakean bizitzearen aldeko mugimendu horren sostengatzeko. Oroitarazten du Kanbotik kanpoko elkarteek diru laguntza bat herriarekin lotura zuzena baldin badute baizik ez dutela hunkitzen.

Beste aldetik, FNACA-k departamenduko kongresua antolatzen du heldu den irailean Kanbon. Ohi den bezala, herriak usaiatz kanpoko diru laguntza bat ematen du gertakizun antolaketarako. Auzapez Jaunak proposatzen du, FNACA eta PG CATM-entzat jadanik egina izan zen moduan, usaiatz kanpoko 1000 €-ko diru laguntzabat ematea.

Aïçaguerre Andereak galdegiten du FNACA-k herriko gela bat ukanen duenez kongresu horren antolaketarako.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio. Kongresua larunbat arratsaldez iraganen da eta ondotik herriko etxean ongi etorria eskainia izanen zaie. Igandean, estatutu biltzar nagusi bat antolatua da eta ondotik bazkaria Itsasun.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du posible denez usaiaz kanpoko diru laguntza eskaera dosierra ikustea, antolaketa horretarako 1 000 €-kodu zamak handia baitirudie oposizioko kideei.

Auzapez Jaunak adierazten du dosierra ez dela oraindik pausatua izan baina aski fite hala izanen dela. 1 000 €-ko eskaera egina izan da antohtzaileek ezagutzen baitute urte guziz baina herri desberdinetan iragaiten den kongresu horren antolatzeari dagokion xahutzeen zenbatekoa.

Aiçaguerre Andereak ohartarazten du herriak 1 000 €-ko diru zama bat eskainiko duela baina neholako frogagiririk gabe. Seinalatzen du tratamendu hau ez zaiela elakrte guzizei aplikatzen. Izan ere, batzuentzako, dossier oso batzuk pausatu behar dira diru laguntza baten itxaropena ukaiteko.

Auzapez Jaunak erantzuten du kongresu honen antolaketa onartzen duten herri guziek diru zama hori eskaintzen dietela. Jestu hau, kargu biziki pisua ekartzen duen antolaketa hori onartu duen tokiko komitearen sostenguz ere egina da. Herriak ezin du jadanik emana duena baino gutiago eman horrelako gertakari baten alde FNACA-ri eta PG CATM-en bitartez.

Bacardatz Jaunak adierazten du elkarte guziei konduak galdeginak izan zaizkiela emana izanen litzaiekeen diru laguntzaren zenbatekoa zehazteko gisan. Hori jadanik egina izan ote da FNACA-rentzat?

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio. Izan ere, FNACA-k urte guziz ibilmolde diru laguntza bat hunkitzen du urte guziz diru laguntza eskaera dossier bat pausatu ondoren, finantza bilana eta aurrekontua agerraraziz.

Bacardatz Jaunak galdegiten du herriak beste antolaketa batzuk, beste kongresu batzuk diruztatuko dituenek, elkarte anitzek herriak xerkatzen dituztelako horrelako gertakariak antolatzeko.

Auzapez Jaunak aiderazten du eskaera bakoitza banaka aztertua dela. Pentsatzen du normala dela FNACA-ko kongresuari harrera molde egokian eskaintzea, Euskal Herriko herri guzietan egiten den gisara. Herriak bi antolaketa kontatzen ditu: PG CATM eta FNACA.

Hiriart-Urruty Andereak PG CATM-ren erranahia zoin den galdegiten du.

Auzapez Jaunak zehazten dio PG CATM-ak Aljeria, Tunisia, Marokoko Gerla Gudari Presoak direla, gaur egun Pierre Iturrioz Jauna delarik elkarte horren lehendakaria. FNACA, Aljeriako Gudari Ohien Federazio Nazionaleko lehendakaria René Belleau jauna da.

Aiçaguerre Andereak ohartarazten du kongresua hiru urte guziz iragaiten bada ere, beti berdinei zaiela dei egiten.

Auzapez Jaunak adierazten du kongresua Kanbon gertatzen delarik, jende anitz hurbiltzen dela molde ezin hobean kokatua baita Euskal Herrian, eta gertakari horrek arrakasta garrantzitsua ezagutzen duela.

Michelena Jaunak gehitzen du Bake Bideak bere kongresua heldu den urtean antolatzen badu Kanbon, elkarteak 1 000 € lortuko duela.

Auzapez Jaunak zehazten dio ez dela Bake Bidea elkarerik Kanbon eta ezin duela iritzirik agertu etorri beharreko erabaki baten inguruan. Eskaera guziak gehiengoko taldean eztabaidatuak

dira, eta ondotik Herriko Kontseiluan. Hitzartzen da erabakirik bakarrik ez hartzera Bake Bideak kongresu bat Kanbon antolatzeko diru laguntza bat galdegiten baldin badu.

Aiçaguerre Andereak gehitzen du espero duela ez dutela gehiago diru laguntzarik eskatzeko beharrik ukanen.

Auzapez Jaunak Herriko Kontseilua bozkatzera gomititzen du.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du bi bozketa desberdin izanen direnez diru laguntza horien banatzeko, umiliagarri atzematen baitu 1 00 €-ko diru zama miserable bat eskaintzea Bake Bideari, erran nahi baita elkarte horrek Aljeriako gudariak baino hamar aldiko inportantzia gutiago duela, azken hauei ekartzen zaien errespetu guziarekin.

Lespade Andereak Hiriart-Urruty Andereari zehazten dio berak zuela, azken Herriko kontseiluaren kariatara, diru laguntza hau galdegin « 100 €-koa besterik ez bada ere ».

Hiriart-Urruty Andereak erraten du: « 100 € eta 1000 € bi lerroak ikusten direlarik, erran nahi du bakeak Euskal Herrian 10 aldiz inportantzia gutiago duela zuentzat ziur aski. Guk ateratzen dugun ondorioa da ».

Auzapez Jaunak erantzuten dio ez duela ikuspegi horrekin bat egiten. Kongresu hori Kanbon gertatzen da, herriko eragileak mobikizatzen ditu, besteak beste biziki aktiboa den FNACA-ko komitea, eta honek biziki diru laguntza apala lortzen duela familien inguruan eramaten duen lan soziala ikusirik. Gainera, departamenduko lehendakariak azpimarratu ditu FNACA-ko komite honen kemena, eraginkortasuna, ekimena eta ekintza. Oroitarazten du usaiak kanpoko diru laguntza bat zaiola eskainia.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

- 100 €-ko diru laguntza Bake Bidea elkarteari: gehiengoak onarturik. Roger Barbier Jauna abstenitzen da.
- Usaiak kanpoko 1000 €-ko diru laguntza FNACA-ri: gñiengoak onarturik. Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aiçaguerre Anderea eta Michelena Jauna abstenitzen dira. Michelena Jaunak zehazten du ez dela printzipioaren gatik abstenitzen baina bai bi diru zamen arteko desorekaren gatik.

Devèze Jaunak adierazten du gehiengoko taldeak printzipioaren ganean bozkatu duela zenbatekoaz baino gehiago, azken saioaren kariatara egina izan zen eskaera segituz.

6 – Prezio ezartzea.

Pascale Lespade Anderea, axuanta ordezkariak, Herriko Kontseilua ondoko gaiei buruz iritzia agertzera gomititzen du:

1º) herriko igerilekuko bainatokien alokatze prezioa 600 €-tik 700 €-ra pasa daiteke M.N.S.-ka denboraldirako. Zehazten du sartzeko prezioak ez direla emendatuko aurtan.

2º) eremu publikoko okupazio prezioak herriko besten garaian.

Lespade Andereak adierazten du prezio hauek ez direla hainbat urtez emendatuak izan, eta metro karratukako prezio bati jarraikiz finkatuak izan direla. Kokaleku desberdinen proposamenak zehazki ematen ditu, erran nahi baita:

Autodromoa	165 €
Pintza garabia	55 €
"Mini-Scooter" zaldiko- maldikoa	110 € 55 €
Churros mahaia	
Tiro mahaia	77 €
"Cracy Dance" zaldiko- maldikoa	110 €
Stand de cascade	77 €
Ahate arrantza	55 €
Gozategia	77 €
Haurren labirintoa	77 €
Karabina mahaia	55 €
Haurren zaldiko-maldikoa	110 €
Casino saltegia	77 €

Hiriart-Urruty Andereak, igerilekuko bainatokien alokatzeari dagokionez, galdegiten du zenbat denborarako finkatua izanen den 700 €-ko prezioa.

Lespade Andereak erantzuten du prezioa maiatza-erditik urri erdira doan sasoirako finkatua dela.

Hiriart-Urruty Andereak oroitarazten du joan den urtean, bere taldeak aipatu zuela bi M.N.S.-ek klase pribatuak emateko igerilekua erabiltzen zutela eta hau arazo bat zela, librokori igeri egin nahi zuten pertsonen kaltetan zelako. Galdegiten du aldaketarik izanen ote den aurtan.

Lespade Andereak ezetz erantzuten dio. Hazparne herrikoekin mintzatu da ikusteko haien igerilekua nola ibiltzen zen errana izan baitzen herri horretan posible zela librokori igeri egitea. Ez da posible haien ibilmoldea Kanbokoarekin parekatzea, bost M.N.S. direlako Hazparden, hauetarik bik urte osoko kontratua dutelako herriko etxean. Igerilekua, publikoari eguerdi eta biak eratean irekia da, hiruetan arratsaldean. Kanbon, 14:30etan irekitzen du.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du Hazparden posible dela 9:00etatik 14:00etara igeri egitea eta 15:00etatik 20:00etara, ordutegi askoz zabalagoa horrela eskainiz. Azpimarratzen du ere igeri klaseen dirua herriko etxeak biltzen duela eta ez M.N.S.ek, eta galdegiten du hori ez denez Kanbon aitzin ikusia izan. Beste aldetik, aquagym klaseak 20:00ak ondotik iragaiten dira, eta Kanboko pertsona batzuk Hazparnera doaz.

Lespade Andereak erantzuten du Hazparneko jende batzuk Kanbora datozela ere klaseak hartzeko.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zer den M.N.S.-en estatutua eta hitzarmen bat pasatua izan denez hauen eta herriaren artean. Istripu bat gertatuko balitz, nor luke ardura?

Lespade Andereak erantzuten dio esku uzte hitzarmen bat badela igerilekua eta bi M.N.S.-en artean. Bi azken hauek asurantz bat hartu behar dute, Lespade Andereak irakurri hitzarmenean idatzia den bezala.

Bacardatz Jaunak proposatzen du igerilekua egun batez edo bi egunez 20:00ak arte irekia izan dadin, kanboarrek baitute igerilekua « ordaintzen », eta gauean igeri egitera etor ahal daitezen. Herriaren hautu bat da ordutegia zabaltzea ala ez.

Lespade Andereak erraten du ordutegia zabaltzen bada, xahutzeak handiagoak izanen direla herriarentzat, igerilekuak kostu handia ekartzen duelako.

Bardin Jaunak seinalatzen du bi M.N.S.-ekin ez dela posible bost M.N.S.-ekin bezain bateko ordutegi batez irekitzea Hazparnen bezala, hauek ordaindu behar baitira.

Lespade Andereak zehazten du legedia bat errespetatu behar dela ordutegiari dagokionez.

Devèze Jaunak hitza hartzen du adierazteko Hazparne herria ez dela erreferentzia bakarra, eta Donibane Garazin M.N.S.-ek Kanbon bezalako estatutu berdina dutela.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du, hautetsi gisa, Kanboko zenbat haurrek klaseak hartzen dituzten Kanboko igerilekuan.

Lespade Andereak erantzuten dio ez duela zenbakia ezagutzen eta M.N.S.-ei galdeginen diela.

Hiriart-Urruty Andereak pentsatzen du interesgarria daitekeela zenbaki hori ezagutzea. Ohartarazten du hamar lekziona 95 € kostatzen dutda. 100 haur batzuk klase horiek segitzen badituzte, 9 500 €-ko zama batera heltzen da, beharbada beste M.N.S. bat ordain daiteke horrekin. Herriak ikerketa egin ote du?

Irastorza Jaunak oroitarazten du posible dela goizean igeri egitea prezio hobean. Beste aldetik, igande goizetan igeri egin nahi zuten pertsona batzuk hala galdeginik, esperientzia eramana izan zela duela bost urte, baina ikusiz eta gehienik lau pertsona etortzen zirela, ez da berritua izan. Lehentasuna haurrei ematen zaie, bai eta klubari, eta horri esker gazteak udan jarduera bat segitzen ahal dute.

Hiriart-Urruty Andereak azpimarratzen du igerilekua kanboarrek finantzatzen dutela, eta haurrak bezainbat gurasoak ere asebate beharko lituzkeela.

Bacardatz Jaunak ohartarazten du kanboar guzietan ez dutela igerileku pribatu bat, eta ez direla uda guzian oportetan. 18:00ak eta 20:00ak arteko tarte batek lan egiten duten jendea egitura honetaz baliatzeko parada emanen lieke.

Auzapez jaunak bere harridura agertzen du erranak diren gauzekin. Igerilekua molde zabalean irekia zaio publikoari. Ohartarazten du ez dela estalia eta horrek gaur egungo defizita oraindik gehiago handituko lukeela. Kontsideratzen du egitura hau gazte publikoari irekia zaiola eskola denboran eta NAPetan eta horri esker urari usatzen zaiela, eta hau garrantzitsua dela. Beste aldetik, igeriketa klubeak gazteei kirol bat egitera eta elkar atzematea ahalbidetzen die. Bizi gune bat da, hezitzailea eta irekia, herriak lehenetsi nahi izan duena.

Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du ez duela kluba kentzea galdegiten, baina hirugarren pertsona bat kontratatzea igeriketaren etekinekin.

Lespade Andereak adierazten du udak ez direla biziki ederrak, eta goibeltasun egunetan haurrak ez direla igerilekuan ibiltzen, baina M.N.S.-ek 19:00ak arte bertan egon behar dutela. Igerilekua hutsa da eta helduak igeri egitera 18:00etatik 19:00etara etor daitezke. Baina ez da nehor.

Auzapez Jaunak proposatzen du eztabaida hau kirol batzordean segitua izan dadin, hau, batzorde horren baitan eztabaidatua izan behar baita.

Bacardatz Jaunak galdegiten du feriakarien betiko plantatzea gelditua izan denez.

Lespade Andereak erantzuten du feriakariak St Joseph parkean plantatuko direla.

Auzapez Jaunak zehazten du plantatze hau 2015eko bali dela. Beste aldetik, zehazten du leku eskubide horiek urte guziz ikusiak diren prezioen zerrendarekin sartzea galdegin duela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

1º) Igerilekuko bainatokien alokatzea 700 €-tan derboraldirako M.N.S. bakoitzarentzat: gehiengoak onarturik. Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aiçaguerre Anderea eta Michelena Jauna abstenitzen dira.

2º) Eremu publikoaren okupazio prezioak herriko besten garaian feriakarientzat: aho batez onartua.

7 –Laborde etxeko etxabeko lokala: iraupen laburreko alokatzea.

Patrice Dor, herriko kontseilari ordezkariak iraupen laburreko alokatze proiektu bat aurkeztu du kide bakoitzak eskuratu duen Laborde etxearen etxabearen kokatua den lokalaren alokatzeko. Alokatzeko, herria eta soldagailu berinagile ofiziala den Nathalie Gonzalez Anderearen artean izenpetua daiteke.

Dor Jaunak, iraupen laburreko alokatze hau komentatu aitzin herriak erreberitu duen eraikuntza horren historikoa egiten du. Hastapenean, osagarri etxeek lokal hau begipean zuten, baina proiektua ez da gauzatu. Gogoeta bat abian ezarria izan da eraikin hau nola erabili ikusteko gisan. Etxe beheko lokala, hiri barne-barnean kokatua izanki, gutizia anitz sortuko zituzkeen, eta gehiengoko taldearen helburua usaiako saltegi baterako ez alokatzea zen. Seinalatzen du lokal honek ez duela aitzindegirik. Zerbitzu publiko bat bertan plantatzea aipatua izan zen, baina, Turismo Bulegoaren gisara, kokapen mota hau interesa ditzakeen zerbitzu publikoek jadanik obrak ezagutu dituzten lokal egokituak dauzkate. Zerbitzu publiko batek ere ez du hautagaitzarik aurkeztu lokal horretarako.

Elkarteen bizian, Karaban'artekin besteak beste Kanbo Beherean, azkarki inplikaturik den Gonzalez Andereak hautagaitza agertu du haren soldagailu berinagile ofiziale lanbidearekin, eta haren ekoizpena eta beste artisautzako mozkinen merkataritza segurtatzeko.

Gonzalez Andereak finantza aurrekontu orekatua eta argudio egokiekilako proiektu bat aurkeztu du.

Bi alokatze mota badaude: bi urteraino joan daitezkeen iraupen laburreko alokatzea, eta herria epe luzeago baterako hautagai batekin hitzartzen duen merkataritza alokatzea (3-6-9).

Gehiengoaren taldeak pentsatu du Gonzalez Anderearen hautagaitza arrunt koherentea zela, eta, Gonzalez Anderearekin adosturik, erabakia izan da urta bateko iraupen laburreko alokatze batekin hastea, parte bakoitzak ikus ahal dezan nola ibiltzen zen.

Dor Jaunak irakurtzen eta komentatzen du merkataritza alokatze batera eraman dezakeen urte bateko iraupen laburreko proiektua, 2015eko ekainaren 2tik goiti. Alokairua 520 €-koa da. Zehazten du Gonzalez Andereak pertsonalki ustiatuko duela soldagailu berinagile negozio funts bat. Hartzailak ezingo du neholaz ere haren alokatze eskubidea beste bati utzi edo lokal osoa edo zati bat azpi alokatu.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du, Kanbo Beherean zuen jarduerari dagokionez, asuratzen segituko duenez, auzotegi hori dinamizatzea aipatzen baitzen.

Dor Jaunak adierazten du Gonzalez Anderea bere proiektuaren aurkeztera etorri delarik, ongi zehaztu zuela Karaban'artean indar anitz sartu zuela eta ez zuela utzi gogo. Baina nahi du ekonomikoki engaiatu.

Auzapez jaunak hitza hartzen du seinalatzeko Gonzalez Anderearen asmoa haren jarduera profesionalaz baliaraztea zela, eta bi jarduerak elkar elikatuko dute. Kanbo Gaineko hiri erdi erdian egonez, dei baten efektua ukanen duela bere saltegia bisitatuko duten pertsonentzat Behereko Kanbora joatera bultzatzeko. Beste artisau batzuek egin gauza batzuk ere proposatuko ditu.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zertan den Karaban'art « Courant d'Air »-era lekualdatzearen xedea.

Auzapez jaunak erantzuten dio elkarte honek justuki eraikin horretara joan behar duela. Obra batzuk burutu behar dira hastapen batean etxe behean, eta, ondotik, heldu den udazkenean elkarte horretako kideek lehen estaia osoa har dezaten. Elektrizitate obrak dira burutuak izan behar ekainean gandi.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du obra horiek konpainia publikoan burutuak izanen direnez.

Auzapez jaunak baietz erantzuten dio, elektrizitate obra guziak konpainia publikoan burutuak direla.

Bacardatz jaunak ohartarazten du eraikin hori eresia izan delarik, errana izan zela ez zela obrarik burutuko. Gaur egun, elektrizitate obrak burutu behar dira. Isolamendu obrak aurreikustekoak ote dira?

Auzapez jaunak erantzuten dio berina bikoitza badagoela jadanik etxe beheko leihoetan, eta gauza berdina eginen dela lehen estaian.

Bacardatz jauna iraupen laburreko alokatzera itzultzen da eta galdegiten du zer gertatuko den urte baten buruko. Herriak galdegiten ahal dio joatea?

Dor jaunak adierazten du baietz, herriak hala erabakitzen baldin badu, haren jarduera etetea galdegiten ahal diola. Baina herriaren helburua, enpresa bat jadanik kudeatu behar izan duen Gonzalez Anderearekin adostasun osoz, alokatze klasiko batekin segitzea dela.

Devèze jaunak zehazten du Gonzalez Andereak duela iraupen laburreko alokatze bat nahi izan. Hastapenetik beretik herriak alokatze bat negozio jabetze batekin burutu izan balu (3-6-9), leporatzen ahal zitzaiola gibelapenik ez hartzea urte bateko froga garai baterako.

Bacardatz jaunak galdegiten du Gonzalez Andereak eremu publikoan erakus dezakenez.

Dor jaunak adierazten du hori ez zela alokatzean zehaztua. Eremu publikoko okupazio arauak badaude. Idazkun eta eremu publikoaren okupazioari dagokionez, eztabaida bat eramana izanen da bi parteen artean.

Hiriart-Urruty Andereak ohartarazten du haren taldea egintza eginaren aitzinean emana dela, alokatzea biharamunean, ekainaren 2an hasiz, eta ez dela eztabaidatzera gomitatua izan. Adierazten du sozial gaietako batzordean, GIG bat eraikin zentral horretan plantatzea aipatu zuela, eta nahiko zuela, Kanbo zinez eskaz dispositibo hori plantan ezarria izan dadin. Leku ezin hobea zen, erdi-erdian.

Lespade Andereak erantzuten dio GIG bat bazegoela zerbitzuanitzeko zentroan eta ez dela ibili.

Hiriart-Urruty Andereak arrazoinak galdegiten ditu, eta zoin ordutegiarekin zebilen. Ohartarazten du Uztaritzekoa biziki ongi ibiltzen dela.

Lespade Andereak adierazten du, Uztaritzekoa ongi baitzebilan, erabakia izan zela Kanbon bat sortzea, eta Uztaritzerekin batera lan egitea erabakia izan zela. Baina kanboko gazteek ez zuten erabiltzen eta hortik dator honen hesteko erabakia.

Hiriart-Urruty Andereak zehazten du 7 000 biztanleko herri batean, GIG interesgarria bada, gazteak hurbilduko zaizkiola.

Lespade Andereak adierazten du esperientzia entseatua izan dela, baina ez dela ibili.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du ez dela etsitzen eta sozial gaietako batzordean GIG berriz aipatua izanen dela.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari galdegiten dio iraupen laburreko alokatze hori izenpetzeko baimena eman diezaion.

Gehiengoak onarturik. Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aïçaguerre Anderea eta Michelena Jauna abstenitzen dira.

Hiriart-Urruty Andereak zehazten du bere taldea ez dela Gonzalez Anderearen jardueraren aurka abstenitzen, baina ez delako batere gai honi buruzko eztabaidarako gomitatua izan.

Auzapez jaunak Patrice Dor eskertu nahi du eraman duen aditutasun lanerako eta adierazten du arrakastatsua dela jarduera mota hau Kanbo erdi-erdian plantatzea, eta Gonzalez Anderearen proiektu profesionala lehenestea.

8 – Constant Colbert Medikua karrikako lur zati baten eskualdatzea – eremu publikoan sartu eta sailkatzea: inkesta publikoaren abian jartzea.

Auzapez jaunak biltzarrari azaltzen dio Jean-Marie BRIDOUX Jaunak ordezkatzeko duen Landouzy HSZ, Constant Colbert Medikua karrikan kokatua den AW 202 lur zatia euro sinbolikoaren truke eskualdatzearen alde dela, bidea zabaltzeko (bihurgunearen mailan) ikusgarritasuna hobetzeko gisan. Lur zati hau jadanik bidearen parte bat da, komeni da beraz egoera egokitzea. 17 m²ko azalerako lur zati hau eremu publikora pasarazteko, inkesta publiko bat beharrezkoa da.

Herriko Kontseiluari operazio honen printzipioari buruzko iritzi bat agertzea eskatzen dio.

Bacardatz Jaunak seinalatzen du badela orain zenbait saio Herriko kontseiluari galdegiten zaiola bere iritzi eman dezan lur zati eskualdatzei buruz. Horren arrazoinak galdegiten ditu.

Auzapez jaunak zehazten dio, euro sinbolikoaren truke herriari emanak zaizkion lur zatiak direla. Auzapeza denetik, aitzineko urteetan lur zatiei buruzko idazketa eskasak kontutan hartu behar ditu. 1995az geroz, zerbitzu teknikoek seinalatzen dutenean, herriak egoera horiek zuzen ezarri nahi ditu. Usu salmenta baten karietara dira jabeak ohartzen eskualdatze horiek ez direla aktatuak izan.

Beste aldetik, bideetan obra batzuk burutuak direlarik, bertako herritarrekin adostu ondoren, obrak aitzin edo batzutan hauen garaian, herriak bide zati baten zabaltzeko paradaz baliatzen da.

Auzapez jaunak gehitzen du ahal bezain bat herriak orain akta administratiboak pasatzen dituela, akta notariatuak askoz luzeagoak izanki.

Michelena Jauna mintzatzten da seinalatzeko duela hamar bat urte, oporretan zelarik, herriak sute iturbegi bat ezarri zuela bere jabegoko lur zati batean. Zerbitzu teknikoak jakinean ziren, eta eskatu zuen aski fite zuzendua izan dadin, eta deus ez da eginik izan. Ez zaio neholako baimenik galdeginik izan kari horretara.

Auzapez jaunak erantzuten dio zerbitzu teknikoek ez zutela horrela jokatu behar, eta adierazten du egoera hori zuzendua izanen dela.

Mme Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du eskualdatze horiek HTP-en berrikuste orokorrari lotuak direnez.

Bardin jaunak erantzuten dio beste eskualdatze batzuk izanen direla. Juanchuto etrobidea eta beste bideetako egoiliar anitz hunkitzen dituzten zuzenketa administratiboak dira. Baina ez du horrek deus ikustekorik HTP-aren berrikustearekin.

Auzapez jaunak zehazten du berandu gabe zuzendu behar dela, gerora arazoei aurre egiteko.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

9 –Paskaleku bidearen eskualdatzea – eremu publikoan sartu eta sailkatzea: inkesta publikoaren abian jartzea.

Auzapez jaunak adierazten du LARROULET Marie Thérèse Andereak, Pasaleku deitu herriko bideko 10. zenbakiaren gaineko bere lur zatiaren sartzeari dagokion 32 m²ko azalerako AR 43 zati kadastratu zatiko parte bat herriari euro sinbolikoaren truke utzi nahi diola. Horri esker, herriak toki horretan bidea zabaltzen ahalko du. 32 m²ko azalerako lur zati hori eremu publikora eskualdatzeko, inkesta publiko bat beharrezkoa da.

Auzapez Jaunak, azalpen gehiago eman ondoren, Herriko Kontseiluari operazio honen printzipioari buruzko iritzi bat agertzea eskatzen dio.

Aho batez onartua.

10 – Ostiraleko merkatua: araudi aldaketa.

Jougleux Andereak, axuant ordezkariak, oroitarazten du merkatua Kanbon duela hogoi bat urte abian ezarria izan zela, eta hazkurriei baizik ez zaiela irekia. Badu zonbait urte orain, profesionalek bezain bat bezeroek ere eskatzen dutela merkatu hori beste mozkin batzuei irekia izan zataien. Orain arte, eta tokiko saltegiak kontutan hartuz, ez zitzaion proposamen horri segidarik emana izan.

Haatik, interesgarria dirudi merkatu hau tokiko artezko artisautzari irekitzea. Esperientza bat aitzina eramateko entsegua egin daiteke urte bat edo bi urtez, ekaina erditik urri erdira, artisauak hautatuz. Artisau horiek pilota plaza ttipi berriko zabaldegian kokatuko daitezke, ahoko mozkinen merkatuaren jarraian. Horretarako, indarrean dagoen araudia aldatu behar da.

« Merkatua » batzordeko azken bilkuraren kariatara, aldaketa hau Herriko Kontseiluari proposatzea erabakia izan da.

Jougleux Andereak araudiko 1. artikulua aldatzea proposatzen du ondoko hau gehituz: « Merkatua ahoko mozkinen besterik ez zaie zuzentzen. Esperientzia gisa, bi urteko iraupenarekin, merkatua tokiko artisautza mozkin batzuei irekia zaie eta hauek pilota plaza ttipiko zabaldegian kokatuak izanen dira, Chiquito karrikaren beheko aldean, ekainaren 1etik urriaren 15era ».

Jougleux Andereak zehazten du leku eskubide prezio berdinak ordainaraziko zaiela artisau horiei.

Bi urteen buruan, merkatuaren tokiko artisautza mozkinen irekitzea mantendua baldin bada, Herriko kontseiluak berriz deliberatuko du.

Lespade Andereak iradokitzen du esperientzia sasoi honetan eramatea, eta, emaitzaren arabera, heldu den urterako ikustea.

Jougleux Andereak pentsatzen du bi urte behar direla. Eskaera biziki azkarra da.

Dor Jauna ados agertzen da esperientzia bi urtez eramateko, denbora piska bat uzteko jarduera hori errotu dadin.

Auzapez jaunak, berrizta daitekeen urte bat proposatzen du.

Michelena Jaunak, perimetro geografiko bat zehaztua izan denez bai eta ekoizpenak tokikoak direla segurtatzea ahalbidetuko duten neurriak zoin izanen diren galdegiten du.

Jougleux Andereak erantzuten dio interesatuak diren pertsonen eskaera idatzi bat igorri beharko dutela herriko etxera. Eskaerak azertuak izanen dira merkatuan plantatu ahal izateko baimena eman aitzin, kalitatezko mozkinak proposatzeko gisan.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluari esperimentazioaren iraupenari eta merkatuko araudiaren aldatzeari buruz iritzi bat ematea galdegiten dio.

Aho batez, Herriko kontseiluak, oraingo merkatua tokiko artisautza mozkinen esperimentu gisa eta urte baterako irekitzea erabakitzen du.

11 –Errobi Herri elkargoa: estatutuen 9 zenbakipeko aldaketa.

Auzapez jaunak, Errobi Herri elkargoari bere baitako kide ez diren beste kolektibitate batzuentzako zerbitzu eskaintza batzuk segurtatzeko ahalmena ematen dion erakunde honetako estatutuen 9 zenbakipeko aldaketa aurkezten du.

Hirigintzako baimen azterketa arloan, Hazparne Herriko Herri elkargoko perimetroari dagozkion lau herrirekin (Aiherra, Beskoitze, Bastida eta Isturitze) burutu lankidetzaren proiektua kontutan hartuz, kide ez diren herri hauen konduko Errobi Herri elkargoak abian ezarri azterketa zerbitzuaren esku hartzea, zerbitzu hornikuntzen legezko koadroan sartzen da.

Auzapez jaunak bozkarazten du. Aho batez onartua.

12 – Euskal Kulturaren Aldeko Herriarte Sindikatua: estatutuen aldaketa.

Peio Etchelecu Jaunak azaltzen du:

Aiherra herriak Euskal Kulturaren Aldeko Herriarte Sindikatuari galdegin dio sindikatu horretan sartzea. EKAHS-eko sindikatu batzordea ados agertu da 2015eko urtarrilaren 18ko delibero baten bitartez. Sindikatuko kide bakoitzak hiru hilabeteko epea du erabakiaren berri ematek goiti, herri berri bat sarrarazteko erabakiari buruzko iritzi bat agertzeko.

Bestalde, 2015eko urtarrilaren 18ko saioan, EKAHS-eko sindikatu batzordeak bere estatutuetako 3. artikulua aldaketa ere bozkatu du, bere egoitza soziala engoitik Baionako Platanondoko 2an finkatuz.

Auzapez Jaunak, EKAHS-eko lehendakari ohi gisa, gaur egungoa Jean-Claude Iriart izanki, haren atsegina agertzen du Aiherra herria sindikatu horretan sartzen ikusirik. Euskal Herriko herri guztiak, bi edo hiru salbu, horretan sartuak dira.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

Devèze Jaunak ohartarazten du estatutuen aldaketak egoitza sozialaren aldaketa hunkitzen duela ere.

Aiherra herriaren sartzea eta Euskal Kulturaren Aldeko Herriarte Sindikatuaren egoitza sozialaren aldaketa aho batez onartuak dira.

13 – Auzapezaren erabakien berri ematea.

Auzapez jaunak oroitarazten du, lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko Herriko kontseiluaren deliberoaren arabera, ondokoaren berri ematen da:

a) 2015eko maiatzaren 3ko hiriko lehentasunez erosteko eskubideari dagozkion ezezko erabaki batzuk:

- Lur zatia: 5
- Etxea: 2
- Apartamendua: 5

b) 2015eko apirilaren 3tik maiatzaren 20ra, hilerriko kontzesioen emate eta berriz hartze batzuei dagozkien erabakiak:

- 15 urteko kontzesio erosketa: 0
- 30 urteko kontzesio erosketa (+ hilobiak): 3
- 30 urteko kontzesio erosketa (+ kolunbarioak): 0
- 15 urteko kontzesio berritzea: 3
- 30 urteko kontzesio berritzea (hilobiak): 0
- Dohaineko lur zatien berriz hartzea: 0

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zoin diren lur zati salduak.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Hardoy lotizamenduari (Consorts Dussert et Curutchet) salduak izan zaizkion bost lur zati direla.

14 – Orotariko gaiak.

➤ Auzapez Jaunak ondoko informazioak ematen ditu:

- Rendez-vous aux jardins: 2015eko ekainaren 6 eta 7an Arnagan
- Besta Berri: 2015eko ekainaren 7an, igandearekin
- Parrokiako kermeza: 2015eko uztailaren 5ean, igandearekin
- Trinketa eta Terrazetako karriken garbiketa: 2015eko ekainaren 8tik 10era
- Ondoko Herriko kontseiluaren bilkura: 2015eko uztailaren 20an.

➤ Devèze Jaunak bere kideei gertakizun berri bat izanen dela abisatzen ditu: les Cîmes historiques/Gailur historikoak. Ez da Gailurretako rallya berriz abiaraztea erabakia izan baina bai kontzentrazio bat hastapeneko ibilbidean. Christian Toffoloren bitartez, honen aita rally horren eragila nagusietakoa izan baita, harremanetan ezarriak izan gara oraingo rallyko antolatzaileekin. Ideia ongi hartua izan da 90 pertsona jadanik engaiatu baitira, eta antolatzaileek parte hartzaileen kopurua mugatu behar izan dute sobera jende ibil ez dadin bideetan. Rally hau heldu diren ekainaren 19, 20 eta 21ean iraganen da. Kanbotik pasaia bat eginen du eta helmuga ekainaren 21a gauean Ligin gertatuko da. Gertakizun honek denboran finkatu beharko balu, abiatzea edo helmuga Kanbon gertatuko litzateke.

Roger Barbierrek zehazten du garaiko ibilgailuek dutela rally horretan parte hartzen.

Bacardatz Jaunak adierazten du lehen, Gailurretako Rallya Andereen Menditik pasatzen zela. Galdegiten du oraingo rallyak bide berdinak segituko dituenaz.

Auzapez jaunak oroitarazten du ez dela kirol lehiaketa bat, baizik eta kontzentrazio bat, eta parte hartzaileek ez dituztela garai hartako bide berdinak erabiliko.

Michelena jaunak galdegiten du diru laguntza eskaera bat aurkeztua izan denez.

Devèze Jaunak ezetz erantzuten dio. Partaide batzuk deituak izan ziren, eta herriari ez zaio diru laguntzarik eskatuko.

➤ Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zertan den HTP-ren berrikustea.

Bardin Jaunak erantzuten dio bilkura desberdinak programatuak direla Axe et Site ikergelarekin eta haien ikerketen aitzinamenduen berri ondoko hirigintza batzorde baten kariatara emanen duela.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zergatik bere taldea ez den Axe et Site ikergelarekin antolatu bilkura horietara gomitatua.

Auzapez Jaunak erantzuten dio Frantziako herri guzietan, bi edo hiru pertsonen dutela horrelako bilkuretan parte hartzen pisuegiak izan ez daitezten. Etapa aurkezpen bat ondotik egiten da batzordean edo Herriko kontseiluan. Axe et Site ikergelari dossier honetan aitzinatzeke denbora utzi behar zaio. Vanel Duluc Andereak kontsideratuko duelarik datu interesgarri andana bat badagoela, etaparen berri emanen du edo hirigintza batzordean edo Herriko kontseiluko osoko bilkuran.

Hiriart-Urruty Andereak ohartarazten du herri guzietan horrela gertatzen dela. Itsasun, Herriko kontseilu guzia gomitatua da. Uztaritzen, hautetsiak hiru aste guziz biltzen dira.

Auzapez Jaunak adierazten du usaian hirigintza gaiez arduratzen diren pertsonen dutela bilkuretan parte hartzen eta etapa bakoitzean lanen aitzinamenduen berri ematen. Gehienik zerbitzuak dira deituak gaur egun hautetsiak baino. Frédéric Bardinek bilkura bat probokatuko du Vanel Dulucekin hala behar izanez gero, egoeraren berri emateko etapaz etapa.

Bardin Jaunak baieztatzen du azken bilkurak administrazioko langileekin eginak izan direla informazioak biltzeko. Gaur egun, ez da arrazoinik hirigintza batzordea biltzeko.

Hiriart-Urruty Andereak dauka ikusiko duela informazioak baliagarriak izanen zaizkion ala ez, eta jasanezina atzematen du bere taldearentzat erabakia izan dadin.

Bardin Jaunak, hirigintza batzordeko lehendakari gisa, estimatzen du, eta erraten du bere jujamendua duela Hiriart-Urruty Andereak zalantzan ezartzen ahal, baina haren iritziz ez da aski informaziorik hirigintza batzordea biltzeko.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du haren jujamendua duela zalantzan ezartzen.

- Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zertan den Txokolategi ohiaren proiektua, eta gaur egungo eraikina jaurtikia izanen denez.

Bardin Jaunak erantzuten du eraikuntza baimena eskainia izan dela eskaera guziak errespetatuak izan direlako. Errekurtso epea eten ez deno, ezin du deus egin. Legezko epea bukatua izanen delarik, eraikina jaurtikia izanen da. Promotoreak finantzamenduak ere atzeman behar ditu.

Auzapez Jaunak zehazten du ez baldin bada beste norbaiten errekurtsorik, jaurtitzea heldu den iraila-urrian aurreikusia dela.

- Hiriart-Urruty Andereak, LSHZ-aren mailako kontu ikuskatzeari dagokionez, galdegiten du posible denez horren kopia bat ukaitea edo hura kontsultatzea.

Auzapez Jaunak erantzuten du herriak aitzin-txosten bat eskuratu duela eta bilkura bat pentsatua dela Henri Saint Jean Medikua eta Christian Devèzerekin behin betiko txostena aztertzeke. Ondorioak gero LSHZ-ari itzuliak izanen zaizkio. Mementoko lan dokumentu

bat baizik ez da. Txosten bat egin izanen da bahin betiko dokumentua gure eskuen artean izanen delarik.

Saint Jean Medikua gehitzen du itzultzea lehenik LSHZ-eko zuzendariari eginen zaiola, eta ondotik gai sozialetako batzordeari. Ez da neholako erabakirik finkatua izan orain arte.

- Hiriart-Urruty Andereak oroitarazten du azken saioaren kariatara, haren taldeak, herriak proposatu elkartasun kutxa bat aipatu zuela, eta galdegiten du zertan den dossier hori.

Auzapez Jaunak erantzuten dio dossier hori ez dela aitzinatu.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du Kudeaketa Zentroa berriz galdatua izan zela oraindik lortuak izan ez diren xehetasun gehigarriak ukaiteko.

Hiriart-Urruty Andereak ohartarazten du Itsasu gisako herri batzuk plantan ezarri dutela, eta ez du ulertzen zergatik Kanbok xehetasunak galdegin behar dituen.

Auzapez Jaunak erantzuten du arrunt legalki ibili nahi duela, eta adierazten du gehiengoaren kide batzuk galderak pausatzen zituztela prozedura horren legezkotasunari buruz. Horretarako da Kudeaketa Zentroa berriz kontsultatua izan dossier horri buruzko segurantza juridiko bat lortzeko.

- Hiriart-Urruty Andereak adierazten du bere taldeak idatzizko galdera bat egin duela sasoiari zerrenda ukaiteko eta hautaketa irizpideak ezagutzeko.

Auzapez Jaunak erantzuten du eskaera hori ongi notatua izan dela. Sasoiariak ez direla irizpide batzuen arabera hautatuak, hautagaitza bakoitza kasu partikularra delako, baina zantzu batzuen arabera: adina, igerilekurako salbu, aitzineko ikastaldien kontutan hartzea, libro izate hilabeteak, inplikazioa Kanboko elkartearen bizian. Auzapez Jaunak zehazten du ez duela berak bakarrik erabakitzen, nahiz eta izendatze horiek haren eskumenekoak baizik ez izan. Izan ere, lanpostuak Herriko kontseiluak sortzen dituen momentutik, auzapezak ditu kontratupeko horiek izendatzen, baina bere axuantekin taldean egiten ditu.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du bere taldeak sasoiari zerrenda ukaiten ahalko duenez.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak hitza hartzen du errateko zerrenda igorria izan dela.

Hiriart-Urruty Andereak erraten du ez duela eskuratu.

Auzapez Jaunak zehazten du baimen bereziak badirela, besteak beste Arnagako gida enplegetarako, bertan, Kanbokoak ez diren pertsonak hartzen baitira, Arnagako loretegietan bezala P. Azarètek esperientzia zerbait duten gazteak ukaiteko eskaera egin ondoren.

- Bacardatz Jaunak ohartarazten du Paskalekuko obrak burutuak izan direla eta hauek, omen pisuegiak zirela, baina herriak berak burutu dituela. Herriko Etxeari igorri gutunean, dutxako kabinaren alokatzearen gain hartzea galdegina zen ere. Zer erabaki du herriak gai honi buruz?

Auzapez Jaunak erantzuten dio ez dela dutxako kabinarik izanen aurtan. Obrak herriak burutu ditu. Lerroak bakarrik gelditzen dira marrazteko, eta hori ekainaren 1etik 5erako astean eginga izanen da. Lan hauek 2 433 € kostatuz aitzakio herriko etxeari. Auzapez Jaunak « pozik » dela dio haien iradokitzea entzunik, baina oroz gaineratik Paskalekun auzotegian kokatu Kanboko pilota plaza tradizional bat erreberritzeaz. Baina Auzapez Jaunak zehazten du ibestizamendu biziki pisua dakartzan hornikuntzak, lehiaketa batzuetarako, herriak ez dituela xahutzeak bere gain hartuko.

Bacardatz Jaunak seinalatzen du ez dela dutxako kabina bat eraikitzea eskatzen, baina bakarrik barnean aldagela bat daukan xantierreko etxola baten alokatzearen ardura hartzea.

Auzapez Jaunak erantzuten dio elkarteak dituela xahutzeak bere gain hartu behar, aldi baterako gertakizun bat baita.

Lespade Andreak hitza hartzen du errateko pentsatzen zuela lehiaketako antolatzaileek galdegiten zutela ur fresak herriak bere gain har ditzan, joan den urtean B. Lapeyrade jaunak duelako ura hornitu. Proposatzen du herriak ur kontsumitze xahutzeak bere gain har ditzan.

Bacardatz Jaunak zehazten du xantierreko etxola ttipi bat dela aldagela eta dutxa batekin. Urarako eta elektrizitaterako loturak normetan eginak dira Lapeyrade Jaunaren etxean. Ez da dutxa baten plantan ezartzea galdegina baina bai etxolaren alokatzearen gain hartzea lehiaketak iraunen duen denbora.

Auzapez Jaunak pentsatzen du elkarteak xahutze horiek bere gain hartzen ahal dituela, herriak hornikuntza egiten duenean.

Aiçaguerre Andreak gehitzen du pilota plaza horrek jende anitz erakartzen duela, lehiaketatik kanpo ere.

Auzapez Jaunak ohartarazten du arrabestako zikiroa ere leku horretan gertatzen dela.

Bacardatz Jaunak adierazten du etxola hori ez ezarriz, lehiaketa arriskuan ezartzen dela, honen alokatzeak 1 000 € kostatzen duelako lehiaketaaren denbora.

Lespade Andreak zehazten du eginga izan zaion eskaeran, uraren ekartzea agertzen zela eta ez etxolaren alokatzea. Behar bada herriak Lapeyrade Jaunari ur kontsumitze xahutzeak ordain liezaizkioke.

Hiriart-Urruty Andreak gehitzen du 50 ekipak parte hartzen dutela lehiaketa horretan, jaz baino 20 ekipa gehiago.

Bacardatz Jaunak, datorren herriko aldizkarirako, galdegiten du zoin egunez atera behar duen aldizkari horrek.

Lassus Jaunak adierazten du herriko aldizkariaren ale bat urte bukaeran, abenduan ateratzen dela, eta beste bat urte erdian, ekainean. Hau zen hitzartua izan joan den otsaileko bilkuran. Galdegin du atxikia zaion oposizioaren orria helaraz zatzaion, leku egoki bat ukan dezan aldizkarian.

Bacardatz Jaunak ohartarazten du azken aldizkarirako, oposizioaren orria iraila bukaeran helarazi duela, et hau abenduan atera dela. Heldu den aldizkaria ekainean aterako da beraz. Oposizioaren orria prest da eta igorria izanen da.

Devèze Jaunak azpimarratzen du ez dela emaitza obligaziorik, bakoitzak ahal duena egiten du duenarekin.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du aktualitatea alda daitekeela bi hilabeteetan.

- Aïçaguerre Andereak erraten du Arnagako Museoen Gauera hurbildu dela, eta adierazten du bi pertsonak villako lehen estaira igaiten ziren pertsonen kontaketa zehatz bat segurtatzen zutela. Izan ere, bisitarien kopurua mugatua izan behar dela adierazi diote bi pertsona horiek: segurtasun arazo bat ote?

Auzapez Jaunak erantzuten dio ez dela neholako segurtasun arazorik.

Aïçaguerre Andereak galdegiten du orduan zertarako herriak bi segurtasun agente ordaindu dituen estaira igaiten ziren pertsonen kopurua kontatzeko.

Auzapez Jaunak erraten du normala dela Kultura Ministerioak Frantziako museo batera pertsonak igor ditzan ikusteko menturazko segurtasun baldintzak bermatuak direnez. Ez da segurtasun arazorik agertzen Arnagan.

Saioa 22:45etan bukatu da.